

AECC MINBIZIAREN AURKAKO ESPAINIAR **ELKARTEAREN BIZKAIKO LURRALDE EGOITZA:** ***Onkologiako doktorego aurreko laguntza deialdia. 2018***

Deialdiaren ezaugarriak:

AECRen Bizkaiko lurralde egoitzak deialdi publikoa egiten dio minbiziaren aurkako ikerkuntzan prestakuntza bidean ari den pertsonalari doktorego tesia egin dezaten, lurralde egoitza honen eraginpeko eremuan ari diren eskatzaileak ez beste inor lehiatu ahal izango delarik.

Diru laguntzen ezaugarriak:

- Laguntzen zuzkidura gordina 20.000 eurotakoa da urtean. Zenbateko honetatik kendu beharko dira PFEZri dagokion zenbatekoa eta gizarte segurantzaren kostua.
- Laguntzen iraupena 36 hiletakoa izango da, beste 12 hiletara luzatu ahal izango dena.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

- **Unibertsitateko titulua:** Deialdira aurkezteko unean, gradu edo titulu ofizial baliokidearen jabe izan eta, laguntza esleitzerako unean, doktoregoko irakaskuntzetara sartzeko baldintzak bete. Laguntza formalizatzerakoan, ikertzaileak matrikula egin behar du doktorego programan.
- **Batez besteko nota:** Lizentziatura edo graduako espediente akademikoa 7,5 edo goragoko batez besteko nota izan.

Eskaerak aurkezteko epea:

Epea 2018ko urriaren 18an amaituko da, 15:00etan.

Eskaerak aurkezteko prozedura:

Hautagaiek eskaria aurkeztu beharko dute <https://fundacioncientifica.aecc.es/> webgunearen ikertzailearen eremuan edo www.bizkaia.aecc.es estekan.

Jarritako eskaria osatu gabe bada edo baldintza guztiak betetzen ez baditu, bazterrean utziko da, errakuntzak zuzentzeko aukerarik gabe.

Eskarrien edukia:

1. Eskatzailearen CV.
2. Ikerketaren memoria zientifikoa.
3. Ikertzaile nagusiaren CV eta talde hartzailearen historial zientifikoa. Ikertaldeko ikertzaile nagusia ez balitz tesi zuzendaria, azken honen CV ere aurkeztu beharko da.
4. Talde hartzailean onartua izan dela justifikatzen duen gutuna, Ikertzaile nagusiak eta **UPV/EHUko ikerkuntzaren arloko errektoreordeak** sinatuta, ikerkuntza batzordearen edo baliokidearen ontzat emanarekin batera, eskatzaileak garatuko duen lan ildoaren interesa eta bideragarritasuna justifikatuz.
5. Deialdiaren oinarriak, **UPV/EHUko ikerkuntzaren arloko errektoreordeak**, ikertalde hartzailearen ikertzaile nagusiak eta eskatzaileak sinatuta.

UPV/EHUn bete beharreko prozedura:

UPV/EHUK kontratuak egingo ditu UPV/EHUKo doktorego programetako tesi zuzendariak dituzten onuradunekin, ez beste inorekin. Programa bakoitzari atxikitako irakasleen zerrenda esteka honetan ikus daiteke:

<https://www.ehu.eus/es/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/doktorego-eskaintza>

Ildo beretik, UPV/EHUK **kontratuak egingo ditu unibertsitateko sail edo institutu bati atxikiko diren pertsonekin, ez beste inorekin.**

UPV/EHUri adskribatu nahi duten hautagaiek ikerkuntzaren arloko errektoreordearen sinadura eskatu beharko dute, pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera idatzita **2018ko urriaren 15eko 8:00ak arte**. Mezu elektronikoa honetan aipatu beharko dute, gainera, proposatutako tesiaren zuzendariaren eta ikertalde hartzailearen ikertzaile nagusiaren izen-deiturak. Errektoreordeak sinatuko ditu dokumentuok azkena. Hortaz, dokumentu hauek gainontzeko sinadura guztiak bertan direla, bidaliko dira pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbide elektronikora.

Fundazioekin harremanetan jartzeko:

Helbide elektronikoa:

UPV/EHUn kontaktua:

Helbide elektronikoa: pre-postdoc.dgi@ehu.eus

Telefonia: 94 601 8008

Informazio gehiago:

<https://www.aecc.es/es/actualidad/noticias/aecc-Bizkaia-destinara-60000eu-ayudas-investigacion-predoctorales-oncologia>